*Los partidos políticos que forman el Gobierno Municipal, sí tienen acceso a la información que se maneja en organismos como la Mancomunidad de San Markos, o el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa. Estos mismos partidos ostentan, además, el Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Sin embargo, el resto de grupos políticos y la ciudadanía, en general, no disponemos de la información deseada, ni de los datos necesarios para conocer la situación real, a día de hoy, de la gestión de residuos en*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

*Gipuzkoa.*

*Horra hor zergatik aurkezten dudan MOZIO ARRUNT hau:*

*1.- Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari, Hondakinen Partzuergoari eta San Marko Mankomunitateari eskatzen die Donostiako udal honi eman diezazkiotela beharrezko datu guztiak donostiarrek eta udal taldeok jakin dezagun, zehazki, zein den gure lurraldeko hondakinen kudeaketaren benetako egoera, egungo finantza egoera eta horren jatorria, horri irtenbidea emateko aurreikuspenak, eta behar diren azpiegituren eta ekipamenduen plangintza, haren finantzaketa eredua eta kronograma barne.*

*2.- Hiri Hondakinei buruzko Batzorde bereziari bidaliko dizkiote lortzen dituzten argibideak eta dokumentuak, Donostian hiri hondakin solidoak biltzeko osoko hobekuntza plan bat lantzeko oinarritzat erabiltzeko, hala, Donostia 2020an Europar Batasunak alor honetan dituen helburuak bete ahal izateko".*
====================================

*Es por lo que la portavoz que suscribe presenta la siguiente MOCION ORDINARIA:*

*1.- El Ayuntamiento Pleno solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa, al Consorcio de Residuos y a la Mancomunidad de San Markos que aporten todos los datos necesarios a este Ayuntamiento de San Sebastián para que la ciudadanía donostiarra y los grupos municipales, conozcamos, concretamente, el estado real de la gestión de residuos en nuestro territorio, la situación financiera actual y el origen de la misma, las previsiones para solventarla, y la planificación de infraestructuras y equipamientos necesaria, incluyendo su modelo de financiación y su cronograma.*

*2.- La documentación e información recabada se trasladará a la Comisión Especial de Residuos Urbanos para que sirva de base para elaborar un plan de mejora integral de la recogida de residuos sólidos urbanos en Donostia / San Sebastián de manera que nuestra ciudad cumpla en 2020 los objetivos de la UE en esta materia".*
==================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hamaseiko martxoaren bian.

ALKATEAK O. E. /

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación , visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a dos de marzo de dos mil dieciséis.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso”.

---------------

**GZK.1. Erakunde Adierazpena, EAJ-PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztuta, martxoaren 8 dela eta.**

“Nazioarteko egunak erreibindikatzeko eta borrokatzeko egunak dira. Egoera bidegabeak agerian utzi nahi dituzte, eta haiek konpontzeko beharrezkoak diren aldaketak eskatu.

1908ko martxoaren 8an gertaera larri bat izan zen lanaren eta sindikatuen borrokaren historian. New Yorkeko Cotton lantegiko 130 emakume langilek grebari ekin eta lantokia okupatu zuten. Aldarrikapen zuzen eta oinarrizkoak ziren: 10 orduko lanaldia eguneko, gizonek beste kobratzea eta baldintza higienikoak hobetzea.

Enpresaren jabeak ateak itxi eta lantegiari sua emateko agindu zuen, langileek amore eman zezaten. Halere, sugarrak hedatu eta ezin izan zituzten kontrolatu. Emakumeak kiskalita hil ziren lantegi barruan.

Bi urte beranduago, II. Internazionala indarrean zegoen garaitsuan, emakume sozialisten bilkura bat deitu zuten Kopenhagen, eta, hartan, martxoaren 8a hildako emakume horien omenez ospatzea

**FOD.1. Declaración Institucional presentada por los Grupos EAJ-PNV, PSE-EE, EH BILDU, PP e IRABAZI DONOSTIA sobre el 8 de marzo.**

“Los días internacionales son días de reivindicación y lucha que pretenden sacar a la luz situaciones injustas y reclamar cambios necesarios para su solución.

El 8 de marzo de 1908 ocurría un grave suceso en la historia del trabajo y de la lucha sindical. Cerca de 130 trabajadoras de la fábrica Cotton de Nueva York, se declaraban en huelga y ocupaban el lugar donde estaban empleadas. Su reivindicaciones eran simples y justas: conseguir una jornada laboral de 10 horas, salario igual que el de los hombres y una mejora de las condiciones higiénicas.

El dueño de la empresa ordenó cerrar las puertas, y provocar un incendio, con la intención de que las empleadas desistieran de su actitud. Sin embargo, las llamas se extendieron y no pudieron ser controladas. La mujeres murieron abrasadas en el interior de la fábrica.

Dos años más tarde, en plena época del funcionamiento de la II Internacional, se convocó en Copenhague una reunión de mujeres socialistas, en la que la revolucionaria alemana, Clara Zetkin, propuso celebrar, el 8

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

proposatu zuen Clara Zetkin iraultzaile alemaniarrak, bai eta Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna deitzea ere.

de marzo en recuerdo de la muerte de estas trabajadoras y denominarlo, Día Internacional de la Mujer Trabajadora.

Harrezkeroztik, talde feministen eta gizartearen borrokari esker, pausu asko eman dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko bidean. Hala ere, oraindik beharrezkoa da, eremu eta toki askotan, emakumeen oinarrizko eskubideak betetzearen alde lan egitea.

Desde entonces y gracias a la lucha de colectivos feministas y de la sociedad, se han dado numerosos pasos a favor de la igualdad de mujeres y hombres, aunque todavía sigue siendo necesario en muchos ámbitos y lugares seguir trabajando por el cumplimiento de los derechos fundamentales de las mujeres.

Denok benetako berdintasunaren alde lan egin behar dugu, bai erakundeek bai gizarteak berak, lan eta enpleguaren banaketa duina lortzeko; zainketa lanak partekatzeko; afektibitatea eta sexualitatea modu desberdin, libre eta seguruan bizitzeko; estereotipoak eta rolak gainditzeko; sexu erasoen eta eraso sexisten kontra borrokatzeko; matxismoari errotik aukera egitea; ezegonkortasunak eta pobreziak emakume aurpegia izatea galaraztea; baldintza bereziak sortzeko denok, emakumeak eta gizonak, parte hartu ahal izateko erabakiak hartzean…

Todos/as debemos trabajar a favor de una igualdad real, desde las instituciones y desde la propia sociedad, para lograr un reparto del trabajo y el empleo digno, compartir labores de cuidado, vivir la afectividad y sexualidad de un modo diverso, libre y seguro, superar estereotipos y roles, luchar contra las agresiones sexuales y sexistas, combatir radicalmente el machismo, evitar que la precariedad y la pobreza tengan rostro de mujer, crear las condiciones necesarias para que todos/as podamos participar en la toma de decisiones...

Gogorarazi behar dugu demokrazia ezin dela eraiki emakumeak bazter utzita. Hala, bada, behar diren neurri guztiak hartu behar dira, ezinbestez, maila guztietan (herrian, eskualdean, estatuan, Europan eta munduan), emakume eta gizonek berdintasunez parte har dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan.

Hemos de recordar que la democracia no se puede construir sin las mujeres, con lo que es ineludible la adopción de todas las medidas necesarias a todos los niveles (local, regional, estatal, europeo y mundial) para conseguir una participación igualitaria de mujeres y hombres en los procesos de construcción y toma de decisiones

Bestalde, Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutunak 10. urteurrena betetzen du aurten. Aldi berean, Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Berdintasunerako Batzordeko lehendakaritza du EUDELek.

Por otro lado , este año se cumple el 10ª Aniversario de la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la vida local. Ello coincide con la presidencia de EUDEL en el Comité de Igualdad del Consejo de Municipios y Regiones de Europa (CCRE-CEMR).

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Esparru horretan, hurrengo martxoaren 8a une egokia izango da euskal udalerriek berpiztu dezaten berdintasuna inplementatzeko duten konpromisoa eta, helburu hori iristeko, bultzada berri bat eman diezaioten Berdintasunerako Gutunari, Europa mailan.

En este marco, la celebración del próximo 8 de marzo supone un momento propicio para que los municipios vascos reactiven su compromiso con la implementación de la igualdad, y en aras de este objetivo lideren un nuevo impulso de la Carta de igualdad a nivel europeo.

Hori guztia dela-eta, martxoaren 8ari begira, eta kontuan hartuta Donostian ere gauza asko ditugula egiteko, honako ERAKUNDE ADIERAZPENA proposatzen dugu, Udalbatzak onar dezan.

Por todo ello, de cara al 8 de marzo y teniendo en cuenta que en Donostia-San Sebastián también hay mucho por hacer, proponemos la siguiente DECLARACIÓN INSTITUCIONAL para su aprobación por parte del Pleno del Ayuntamiento:

1. Donostiako Udalak dei egiten die Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Europako estatu eta erakundeei emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta Europako gizarteen ardatz nagusietakoa dela berrets dezaten. Horrenbestez, toki nagusia eman behar zaio agenda politikoan eta indarreko politika eta lege guztietan txertatu behar da.

1. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián hace un llamamiento a la Diputación Foral, al Gobierno Vasco, a los Estados y a las instituciones europeas para que ratifiquen la igualdad de mujeres y hombres como elemento central de nuestros valores y de las sociedades europeas; por este motivo debe ocupar un puesto central en la agenda política y ser integrada en todas las políticas y legislaciones en vigor.

2. Donostiako Udalak dei egiten die Europako hiri eta eskualdeei berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartzeko, CCRE-CEMRrek 2006an sustatutako Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan Izan Behar Duten Berdintasunerako Europako Gutuna sinatuta, orain arte 1.500 hirik eta eskualdek egin duten bezala.

2. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián llama a las ciudades y regiones de Europa a adquirir un compromiso formal en favor de la igualdad firmando la Carta Europea para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la Vida Local, auspiciada por el CCRE-CEMR en 2006, que ha sido firmada hasta la fecha por más de 1500 ciudades y regiones;

3. Donostiako Udalak hitzematen du Gutunaren sinatzaileek honakoak egitea bultzatuko duela: eskualde eta herri mailan berdintasuna sustatzeko neurri konkretuak hartzea; CCRE-CEMRrek bere Behatokiaren bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiltzea, herrialde desberdinetan herri eta eskualde

3. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián muestra su compromiso de promover que quienes hayan firmado la Carta tomen medidas concretas para promover la igualdad a nivel regional y local; hagan uso de las herramientas que pone a disposición el CCRE-CEMR a través de su Observatorio, en

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

gobernuak izendatuta dituzten eskumenekin bat; eta horiek guztiak inplementatzeko bitarteko finantzarioak eta giza baliabideak jarri eta Donostiako Berdintasun Plana garatzen jarraitzea.

línea con los poderes conferidos a gobiernos locales y regionales en los diferentes países; y proporcionen los recursos financieros y humanos necesarios para su implementación y a continuar desarrollando el Plan Municipal de Igualdad.

4. Donostiako Udalak salatzen du emakumeek gaur egun, XXI. mendean, indarkeria pairatzen dutela oraindik: bizitza publiko nahiz pribatuan emakumeen kontra egindako indarkeria mota guztiei aurre egin behar zaie, hala nola, emakumeen trafikoari, sexu esplotazioari, etxe barruko indarkeriari eta emakumeen giza eskubideen kontrako bestelako ekintzei.

4. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián denuncia que la violencia que siguen soportando las mujeres en la actualidad, aún en el siglo XXI: se debe combatir toda forma de violencia perpetrada contra las mujeres en la vida pública y privada, incluido el tráfico de mujeres, la explotación sexual, la violencia en el ámbito doméstico y otros actos contra los derechos humanos de las mujeres;

5. Donostiako Udalak dei egiten die Europar Batasuneko estatu eta erakundeei politika eta lege komunak onar ditzaten, genero indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa eta laguntza emateari eta egoera horiek prebenitzeari dagokienez. Halaber, deia egiten die estatuei indarkeria mota guztien aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Ituna berrestera. Hortaz, Udal honek bere egiten du indarkeria matxistaren aurkako protokoloa indartzeko konpromisoa.

5. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián hace un llamamiento a la Diputación, Gobierno Vasco y a los Estados e instituciones de la UE para adoptar unas políticas y legislación comunes con respecto a la prevención, protección y apoyo a las mujeres víctimas de la violencia de género; hacer dicho llamamiento a los Estados para que ratifiquen el Convenio del Consejo de Europa para prevenir y combatir Todo tipo de violencia machista. Por ello este Ayuntamieto adquiere el compromiso de reforzar el protocolo contra la violencia machista.

6. Donostiako Udalak hitzematen du kontuan hartuko dituela gerra eta jazarpenetik ihesean dabiltzan eta gure hiri eta udalerrietara iristen diren emakume eta adingabe errefuxiatuen behar espezifikoak. Era berean, harrera eta arreta egokiak emango dizkie eta indarkeria eta diskriminazio mota guztiak prebenituko ditu.

6. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebasitán se compromete a tener en cuenta las necesidades específicas de mujeres y menores refugiados que huyen de la guerra y la persecución, y que llegan a nuestras ciudades y municipios; proporcionarles la acogida y la atención adecuadas y la prevención de toda clase de violencia y discriminación.

7. Donostiako Udalak aditzera ematen du

7. El Ayuntamiento de Donostia / San

prest dagoela maila globalean lankidetzan aritzeko, Nazio Batuen 2030 Agendako 5. helburua lortzeko, hau da, emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiei amaiera emateko.

Sebasitán muestra su voluntad de cooperación a nivel global para conseguir el Objetivo 5 de la Agenda 2030 de las Naciones Unidas, que tiene como objetivo poner fin a toda forma de discriminación contra las mujeres.

8. Donostiako Udalak hitzematen du prebentziorako udal politikak garatuko dituela. Politika horien oinarrizko zutabea da heziketa afektibo-sexuala ematea maila guztietan, emakume eta gizonen artean errespetuan eta berdintasunean oinarritutako harremanak gauzatu ahal izateko. Genero indarkeria desberdintasunaren muturreko adierazpena da; izan ere, berdintasunik ezak agertzeko modu asko ditu eta emakume guztien bizitzan zehar ditu ondorioak, neurri handiagoan edo txikiagoan. Helburu horri lortzeko, Donostiako Udalak bere egiten du berdintasun politika aktibo, integral eta parte-hartzaileak indartzeko konpromisoa.

8. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se compromete a apostar por las políticas municipales de prevención, donde un pilar fundamental es una educación afectivo-sexual a todos los niveles que facilite desarrollar relaciones basadas en el respeto y la igualdad real entre mujeres y hombres; la violencia de género es una expresión extrema de la desigualdad que se manifiesta de múltiples formas y que recorre la vida de todas las mujeres, en mayor o menor medida. Para lograr este objetivo el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se compromete a reforzar los las políticas de igualdad activas, integrales y participativas

9. Emakumeek nozitzen dituzten lan esplotazioaren eta ezberdinkeriaren aurrean, funtsezkoa da gure ongizate estatua, zalantzan jarria, garatzeko oinarriak finkatzea, eta, horregatik, Donostiako Udalak bere gain hartzen du emakumeen autonomia pertsonal eta ekonomikoa galarazten duten oztopoak gainditzeko politikak sustatzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko baldintzak jartzeko konpromisoa.

9. Ante la discriminación y desigualdad laboral de las mujeres; es fundamental asentar las bases de desarrollo de nuestro cuestionado Estado del Bienestar, y es por ello que el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se compromete a fomentar políticas que eliminen los obstáculos que imposibilitan el logro de la autonomía personal y económica de las mujeres y a crear las condiciones para que se genere empleo de calidad

10. Donostiako Udalak hitzematen du Berdintasun Bulegoaren programak indartuko dituela eta ezagutzera emango emakume donostiarrek bizitzen duten errealitatea.

10. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián muestra su compromiso a fortalecer los programas del departamento de igualdad y a difundir la realidad en la que viven las mujeres de la ciudad

11. Donostiako Udalak hitzematen du Donostiako kale izendegia aztertuko duela eta emakumeen izen gehiago sartuko dituela.

11. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián muestra su compromiso a revisar el callejero de la ciudad e incorporar nombres de

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

mujeres al mismo.

12. Donostiako Udalak hitzematen du hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiliko duela bere idazki guztietan.

12. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián muestra su compromiso a utilizar un lenguaje no sexista e inclusivo en todos sus escritos.

13. Donostiako Udalak hitzematen du udalerriko puntu beltzen mapa lantzen jarraituko duela, hiriko auzo elkarteekin, agenteekin, emakumeekin eta talde feministekin batera, bai eta, ahal duen neurrian, horiek kentzeko, hirigintza garapen berrietan puntu kritikoak egoten saihesteaz gain.

13. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián muestra su compromiso a seguir elaborando el mapa de Puntos Críticos del municipio en colaboración con asociaciones vecinales, agentes, mujeres y grupos feministas de la ciudad y a eliminarlos en la medida de las posibilidades e igualmente evitará en sus nuevos desarrollos urbanísticos los Puntos Críticos.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

14. Donostiako Udalak hitzematen du hirian egiten diren festa ekitaldi eta ospakizunetan parte-hartze paritarioa bultzatuko duela, udalerriko talde eta elkarteekin batera.

14. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián muestra su compromiso a impulsar la participación paritaria en los actos festivos y celebraciones de la ciudad en colaboración con grupos y asociaciones del municipio.

15. Donostiako Udalak dei egiten du emakumeek eta talde feministek antolatutako mobilizazioetan parte hartzera.

15. El Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián realiza un llamamiento a participar en las movilizaciones convocadas por mujeres y grupos feministas.

EAJREN BOZERAMAILEA
Miren Azkarate

PSE-EE TALDEAREN BOZERAMAILEA
Ernesto Gasco

EH BILDUREN BOZERAMAILEA
Amaia Almirall

PPREN BOZERAMAILEA
Miren Albistur

IRABAZIREN BOZERAMAILEA
Amaia Martin”.

PORTAVOZ EAJ-PNV
Miren Azkarate

PORTAVOZ PSE-EE
Ernesto Gasco

PORTAVOZ EH BILDU
Amaia Almirall

PORTAVOZ PP
Miren Albistur

PORTAVOZ IRABAZI
Amaia Martin”.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2.1. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, berdintasun ordenantzari buruzkoa.**

“Donostia, 2016ko otsailaren 19a

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garin naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, azterkizun aurkezten diot Udalbatzari ondoko KONTROL MOZIO hau, otsailaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean berdintasun ordenantza idatzi eta onartzeari buruz aurkezturiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Neurri eta tresna batzuk arautu zituen Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18an onarturiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, gizartean emakumeen eta gizonen artean diren ezberdintasun handiak gainditzen saiatzeko.

Hainbat arau onartu dituzte euskal erakundeek emakumeen eta gizonen arteko

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre la redacción y aprobación de una ordenanza de igualdad.**

“Donostia, a 19 de Febrero de 2016

Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN DE CONTROL derivada de la interpelación en la Comisión de Servicios a las Personas del 15 de febrero, sobre la redacción y aprobación de una ordenanza de igualdad

JUSTIFICACIÓN

La Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres del País Vasco, supuso la regulación de una serie de medidas e instrumentos para tratar de superar las importantes desigualdades existentes en la sociedad entre mujeres y hombres.

Las instituciones vascas, han venido aprobando diversa normativa para avanzar en

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

berdintasunean aurrera egiteko. Donostiako Udala ez da salbuespena, eta, orain, 2014-2018 Berdintasun Plana du indarrean. Halaber, bai Euskadin bai Gipuzkoan, udalerri batzuek, urrunago joanda, berdintasun ordenantzak onartu dituzte, ordenantza izateak ezinbestean betebeharreko arau bihurtzen baititu, hirigintza, ingurumen edo kultur ordenantzek duten maila eta egonkortasun maila beretan.

la igualdad de mujeres y hombres. El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián no ha sido una excepción, y en este momento está vigente el III Plan de Igualdad 2014-2018. Asimismo, en Euskadi, y en Gipuzkoa hay ayutamientos que han ido más allá y han aprobado ordenanzas de igualdad que dotan de mayor rango y estabilidad a las políticas municipales en esta materia, puesto que el rango de ordenanza las convierte en normativa de obligado cumplimiento al mismo nivel que otras ordenanzas urbanísticas, medio ambientales o culturales.

Indarreko III. Berdintasun Plana partaidetzan prestatu zuten, Berdintasun Bulegoaren gidaritzapean, esku hartu zutelarik nahiz udaleko langileek nahiz Donostiako mugimendu feministako eta emakumeen elkarteetako kideek, Berdintasunaren Aldeko Donostiako Emakumeen Kontseiluak eta banako emakume batzuek. Gure ustez, partaidetza zabaleko eredu horren arabera egin beharko genuke proposatzen dugun ordenantza.

El III Plan de Igualdad actualmente en vigor, se eleboró mediante un proceso participativo liderado por el Negociado de Igualdad, donde tomaron parte tanto personal del Ayuntamiento como el movimiento feminista y asociaciones de mujeres de la ciudad, el Consejo de las Mujeres de Donostia/San Sebastián por la Igualdad y mujeres a título individual. Consideramos que la ordenanza que proponemos debería ser elaborada siguiendo este modelo participativo amplio.

Horregatik guztiagatik, ondoko kontrol mozioa aurkezten dugu

Por todo ello presetamos la siguiente moción de control

MOZIOA

MOCIÓN

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari aurkeztu diezaiola Udalbatzar honi berdintasun ordenantza bat, udalaren berdintasun politikei arau maila handiagoa eransteko. Partaidetzan prestatuko dute berdintasun ordenantza, erreferentzia hartuta III. Berdintasun Plana idaztean erabilitakoa.

El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta la Gobierno municipal a que presente para su aprobación por este Pleno una ordenanza de igualdad que dote de mayor rango normativo a las políticas municipales de igualdad. El proceso de elaboración de la ordenanza de igualdad será participativo, tomando como referencia el llevado a cabo en la redacción del III Plan de Igualdad.

Sinatua: Amaia Martin Garin,

Fdo.: Amaia Martin Garin

Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto las señoras Dª. Amaia Martín Garín, Dª. Naiara Sampedro Pérez, Dª. María Luisa García Gurruchaga y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, kereila jartzea Donostian izandako krimen frankistak ikertzeko buruzkoa.**

"Donostia, 2016ko otsailaren 16a

Amaia Martinez Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, PERTSONENTZAKO ZERBITZU BATZORDEAn frankismoaren biktimei buruz egindako interpelazioaren harira.

JUSTIFIKAZIOA

1936ko uztailaren 18an, kolpe militar faxista

**II.2.2. Moción de control presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA relativa a la interposición de querella para investigar los crímenes franquistas en Donostia.**

"Donostia a 19 de Febrero de 2016

Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL fruto de la interpelación que realizó en la COMISION DE SERVICIOS A LAS PERSONAS sobre las víctimas del franquismo

JUSTIFICACIÓN

El 18 de Julio de 1936 un golpe militar-fascista

batek II. Errepublikako agintariak (herrikoak, autonomikoak eta estatukoak), denak legezkoak eta hautatuak, kargutik kendu zituen. Alemania naziaren eta Italia faxistaren laguntzaz egindako matxinada horrek helburu zuen kolpisten inspirazioa zen ideologia nazional-katolikoaren, faxistaren eta eskuinekoaren kontra zeuden pertsona, talde eta organizazio sozial, politiko eta kultural guztiak zapaltzea.

depuso a las legítimas autoridades electas (locales, autonómicas y estatales) de la II República. La sublevación apoyada por la Alemania nazi y la Italia fascista, tuvo por objeto la represión contra todas aquellas personas, grupos y organizaciones sociales, políticas y culturales contrarias a la ideología nacional-católica, fascista y de derechas que inspiraba a los golpistas.

Kolpeak diktadura ekarri zuen atzetik. Erregimen horrek eskubide eta askatasun oinarrizkoenak sistematikoki urratu zituen berrogei urtean: ehunka mila pertsona fusilatu nahiz desagertuak; erbesteratze masiboak; bortxazko lanak esklabotasunean; dozenaka mila lagun atxilotuak, tratu txarrak jasandakoak, torturatu eta espetxeratuak; hizkuntzak eta kulturak jazarriak…

El golpe dio origen a una Dictadura que de forma sistémica vulneró los más elementales derechos y libertades durante cuarenta años: cientos de miles de personas fusiladas y desaparecidas, exilio masivo, trabajos forzados en régimen de esclavitud, decenas de miles detenidas, maltratadas, torturadas y encarceladas, lenguas y culturas perseguidas...

Hiru hilabete baino gehixeago iraganda, Gipuzkoa frankisten eskuetan erori zen. Gerran fusilatu eta desagertuen Gipuzkoako zerrendan 1.100 pertsona ageri dira. Gehienak, 1936ko altxamendu militarraren ondoren atxilotu eta espetxeratu eta gero fusilatu zituzten. Horiek guztiek biktima ez ofizialen zerrenda osatzen dute, urte haietako errepresioak utzitako izenik gabeko hildakoena.

En algo más de tres meses Gipuzkoa cayó en manos franquistas. El listado de fusilados y desaparecidos en la Guerra asciende a 1.100 personas en la provincia, fusilados en su mayor parte después de ser detenidos y encarcelados tras el alzamiento militar de 1936, todos ellos componen el listado de víctimas no oficiales, de los muertos sin nombre que dejó la represión de esos años.

1936ko irailaren 13tik 1942ko urtarrilaren 21a arte, hau da, Imanol Asarta donostiarra Madrilen hil zuten arte −Porlier espetxean hil zuten, Donostiako bizilaguna zen Jesús Larrañaga beasaindarrarekin batera−, gutxienez 380 pertsona exekutatu zituzten frankistek. Aukera politiko eta sindikal guztietako jendeak ziren, matxinatutakoei kontra egin zietenak edo laguntza eman ez zietenak. Diktadurak iraun bitartean,

Desde el 13 de septiembre de 1936, hasta el 21 de enero de 1942, fecha de la ejecución en Madrid del donostiarra Imanol Asarta, ejecutado en la prisión de Porlier junto a Jesús Larrañaga, natural de Beasain y vecino de Donostia, al menos 380 personas fueron ejecutadas por los franquistas. Gentes de todas las opciones políticas y sindicales que se opusieron a los sublevados o que no colaboraron con ellos. Durante la Dictadura la

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

errepresioa ez zen eten: askatasun demokratikoak guztiz kendu ziren, giza eskubideak nabarmen urratu ziren, arrazoirik gabeko errepresio zeinezkorik gabea egin zen, sinesmen erlijioso eta ideologikoak inposatu ziren… Guztira, Donostiako Udaleko 1.623 funtzionario “ikertuak edo baztertuak” izan ziren, eta haietako zazpi, fusilatuak.

represión no cesó: supresión total de libertades democráticas, vulneración flagrante de derechos humanos, represión gratuita e indiscriminada, imposición de credos religiosos e ideológicos... En total, 1.623 funcionarios del ayuntamiento donostiarra fueron "investigados o depurados" y siete de ellos, fusilados.

Gizateriaren kontrako krimena

Crimen contra la humanidad

Nurembergeko epaiketek genozidio nazia epaitu zuten eta, bertan, gizateriaren kontrako krimenen inguruan gaur egun indarrean dauden printzipioak finkatu ziren. Geroago, Nazioarteko Zigor Auzitegiak krimen horiek definituko zituen bere Estatutuan, 1998an: ekintza gizagabe larriak, biztanleria zibilaren kontrako eraso orokor edo sistematiko baten parte direnak, eta eraso horren berri jakinda egiten direnak. Hala, begien bistako da 1936ko estatu kolpearen eta geroko diktaduraren ondorioz egindako giza eskubideen bortxaketa larriak bete-betean sartzen direla gizateriaren kontrako krimenen kontzeptuaren barruan.

En los juicios de Nuremberg, donde se juzgó el genocidio nazi, se fijaron los principios vigentes en materia de crímenes contra la humanidad, que serían definidos después en el Estatuto de la Corte Penal Internacional-1998- como aquellos actos inhumanos graves que suponen “la comisión como parte de un ataque generalizado o sistemático contra una población civil y con conocimiento de dicho ataque”. Es evidente así que las graves violaciones de derechos humanos derivadas del golpe de estado de 1936 y de la posterior dictadura entran de lleno dentro de este concepto de crimenes contra la humanidad.

Delitu horien ezaugarri nagusia da preskribaezinak direla, eta hala ezarrita dago Gerrako Krimenen eta Gizateriaren aurkako Krimenen Konbentzioan (1968). Konbentzio horrek dioenez, krimen horiek preskribaezinak dira, zein datatan egin diren axola ez diola.

Estos delitos tienen como característica principal su imprescriptibilidad, así establecida en la Convención sobre Crímenes de Guerra y de Lesa Humanidad, de 1968, que afirma que los mismo “son imprescriptibles cualesquiera que sea la fecha en que se hayan cometido”.

Bestalde, 1977ko urriaren 15eko 46/1977 Espainiako Legeak, Amnistiarenak, ezin du, inola ere, delitu horiek babestu. Izan ere, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (ONU-1966); Espainiako Konstituzioa bera (1972); Kode Zibila (1.5 artikulua); Tratatuen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioa (estatu espainiarra 1972an atxiki zitzaion);

Por otro lado, la Ley española 46/1977, de 15 de octubre, de Aminístia, en modo alguno puede servir para amparar aquellos delitos, por razón de lo dispuesto en el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos (ONU-1966), la propia Constitución española (articulo 10), el Código Civil (articulo 1.5), la Convención de Viena sobre el Derecho de los Tratados

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Nazio Batuen Biltzar Orokorrak 1973an emandako ebazpena, gerrako krimenen edo gizateriaren aurkako krimenen errudunak identifikatu, estraditatu eta zigortzeari buruzkoa, eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeak 2015ean emandako txosten eta ebazpenak Amnistia Lege hori aplikatzearen aurka daude, justizia unibertsalaren printzipioen kontrakoa delakoan.

(Adhesión del Estado español en 1972), la Resolución de la Asamblea General de Naciones Unidas de 1973, sobre “Identificación, extradición y castigo de los culpables de crímenes de guerra o de crímenes de lesa humanidad” y los Informes y resoluciones de su Comité de Derechos Humanos de la ONU, de 2015, opuestos a la aplicación de esa Ley de Amnistía por entenderla contraria a los principios vigentes en materia de justicia universal.

Pablo de Greiffi Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen arloko Kontulari bereziaren hitzetan, Amnistia Lege hori aplikatuz gero, gertaerak, erantzukizunak eta zigorrak finkatu eta gero aplikatu beharko litzateke; hau da, aplikatuko balitz, a posteriori aplikatu beharko litzateke, gertakariak epaitu eta gero, eta inoiz ez a priori, inolako erantzukizunik finkatzeko aukerarik utzi gabe.

Pero es que, tal como señaló en su día el Relator Especial de la ONU en materia de Derechos Humanos, Sr. Pablo de Greiffi, caso de aplicarse esta Ley de Amnistía, esto debería hacerse una vez determinados los hechos, responsabilidades y penas correspondientes; es decir, caso de ser aplicada, debería serlo a posteriori, una vez juzgados los hechos, pero nunca a priori, sin pie a determinar responsabilidad alguna.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

“Argentinako kereila” eta justizia unibertsalaren aplikazioa.

La “querella argentina” y la aplicación de la justicia universal.

Nazioartean, Argentinako Justiziak (Krimen eta Zentzagarrien arloko Buenos Aireseko 1. Epaitegi Nazionala) kausa bat ireki du Espainiako diktadurak egindako gizateriaren aurkako krimenengatik. Horren barruan, hogei atxiloketa eta estradizio-agindu baino gehiago eman dira zortzi ministro-ohi frankisten kontra (Martin Villa, besteak beste) eta hainbat polizia-ohi, guarda zibil, militar, epaile eta abarren kontra. Hala eta guztiz ere, Auzitegi Nazionalak, justizia unibertsaleko arau hauek aplikatzearen ondorio diren eskakizun horiei entzungor eginez, uko egin dio, orain arte, atxilotzeko eta estraditatzeko agindu horiek betetzeari.

En el ámbito internacional, la Justicia argentina (Juzgado Nacional en lo Criminal y Correccional nº 1, de Buenos Aires) ha abierto una causa por crímenes contra la humanidad perpetrados por la dictadura española en la que se han dictado hasta la fecha más que veinte órdenes de detención y extradición contra ocho exministros franquistas (Martin Villa, entre otros) y varios ex policías, guardias civiles, militares, jueces... A pesar de ello, la Audiencia Nacional, desatendiendo exigencias derivadas de la aplicación de estas normas de justicia universal, ha rechazado hasta la fecha la puesta en práctica de estas órdenes de detención y extradición.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Prozedura hori dela-eta, estatu osoko ehun udalek baino gehiagok (besteak beste, Donostiakoa) eta autonomietako parlamentu batzuek (Asturias, Catalunya, Andaluzia, Euskadi…) babesa eta atxikimendua eman dizkiote kereilari.

Donostiako Udalak 2012ko irailaren 27an hartutako erabakiaren bidez, legez eratutako gobernuen kontrako altxamendu militar guztiak −esate baterako, 1936ko uztailekoa, Franco jeneralak Errepublikako Gobernuaren aurka gerra hasi zuenekoa, legez kontra− gaitzetsi zituen. Orobat, (…) oligarkiek, eta baita Eliza Katolikoaren hierarkiaren parte handi batek ere, altxamendu militarra babesteko eta finantzatzeko orduan nahiz gero ezarritako erregimen frankistari eusteko orduan izan zuten papera ere salatu zuen Donostiako Udalak. Azkenik, hitz eman zuen beharrezko neurriak hartuko zituela eskubide hauek bermatzeko: egia ezagutzeko eskubidea, justizia eraginkorra izateko eskubidea eta ordain duin eta ez-diskriminatzailea izateko eskubidea.

Ildo horretatik, eta erabaki horri jarraipena emanez, gure hirian, Donostian, izandako krimenak direla-eta, egia, justizia eta erreparazioa lortzeko ahaleginean sakondu nahi dugu. Izan ere, herri mailan, asasinatuen, desagertuen, espetxeratuen, erbesteratuen… kopuruak izen eta abizen bihurtzen dira, kontakizun pertsonal. Hala, ukitu daitezkeen frogak osatzen dituzte, berreskuratu beharreko oroitzapenak, erantzukizun indibidualak...

Helburu hori dela-eta, honako kontrol mozioa aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

En relación con este procedimiento son más de cien los ayuntamientos de todo el Estado (entre ellos el de Donostia / San Sebastián) y varios parlamentos autonómicos (Asturias, Catalunya, Andalucia, Euskadi,...) los que han dado su apoyo y adhesión a la querella.

En el Acuerdo adoptado al efecto por el Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián de 27 de Septiembre de 2012, tras condenarse “las sublevaciones militares contra los gobiernos legítimamente constituidos como fue el caso de julio de 1936 cuando el General Franco de forma ilegítima inició una guerra contra el Gobierno de la República”; continúa denunciando “el papel de las oligarquías (...) así como gran parte de la jerarquía de la Iglesia Católica tuvieron a la hora de apoyar y financiar la sublevación militar, y después en sostener el regimen franquista instalado”; termina comprometiendose en “adoptar medidas necesarias para garantizar el derecho a la verdad, el derecho a la justicia efectiva, el derecho a una reparación digna y no discriminatoria”.

En esta dirección, y dando continuidad al citado Acuerdo, se trata de profundizar en este empeño por recuperar verdad, justicia y reparación en relación con los crímenes cometidos en nuestra ciudad, Donostia / San Sebastián, pues es a este nivel local donde las cifras de asesitanos, desaparecidos, encarcelados, exiliados... se concretan en nombres y apellidos, en relatos personales, en pruebas tangibles, en memorias a rescatar, en responsabilidades individualizadas.

Con tal fin, presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kereila kriminal bat jartzeko Donostiako Instrukzioko Epaitegietan, epaitegiok honako eginkizunak bete ditzaten: diktadura frankistak gizateriaren aurka egindako krimenak ikertzea, udalerri honetako bizilagunei erasan zien neurrian (Eusko Jaurlaritzaren Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiak bildutako biktimen zerrenda); krimen horiek zer egoeratan egin ziren eta zein izan ziren haien erantzule zuzen eta zeharkakoak finkatzea, eta, hala badagokio, pertsona horiek inputatu, auzitaratu, epaitu eta kondenatzea.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a interponer una querella criminal ante los Juzgados de Instrucción de Donostia / San Sebastián a efectos de que por parte de éstos se investiguen los crímenes contra la humanidad cometidos por la dictadura franquista que afectaron a los y las vecinas de de este Ayuntamiento (relación de víctimas recogidas por la Secretaría General de Paz y Convivencia del Gobierno Vasco), se determinen las circunstancias en que fueron perpetrados, quiénes fueron sus responsables directos y mediatos y, en su caso, se proceda a su imputación, procesamiento, juicio y condena.

2. Jakinaraztea erabaki hau Argentinako Errepublikako Buenos Aireseko Krimen eta Zentzagarrien arloko 1. Epaitegi Nazionalari −Maria Servini de Cubría epailearen ardurapean−, dagozkion ondorioak izan ditzan 4591/2010 kereilan: N.N. Dictadura frankistak Espainian egindako gizateriaren aurkako krimenengatik eta/edo genozidioarengatik.

2. Dar traslado de este acuerdo al Juzgado Nacional de lo Criminal y Correccional Federal nº1 de Buenos Aires, República Argentina, a cargo de la jueza Maria Servini de Cubría, a fin de que surta los efectos que procedan en la Querella 4591/2010, nominada “N.N. por genocidio y/o crímenes de lesa humanidad cometidos en España por la dictadura franquista”.

Izpta.: Amaia Martin Garin
Irabazi Donosita taldeko bozeramailea”.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as Dª. Amaia Martín Garín, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Juan Ramón Viles Mitxelena y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) - IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Abegi Etxeko eranskinerako araudi bat egitea dela eta.**

“Donostian, 2016ko otsailaren 19an

Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garin naizen honek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau egiten diot Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Aitziber San Romani, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aurkezturiko interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak dituen larrialdiko ostatua emateko baliabideen artean, Gizarte Abegi Etxeko eranskina. Gizarte Abegi Etxeari atxikitako egoitza hori adingabekoak dituzten familientzat da. Ohatzedun 3 logela ditu (2, 6 eta 8 ohe), sukalde-jantoki bat, bi bainu gela eta dutxa bat. Salbuespenetan izan ezik, urteko oroitidazkian eskudun atalak azaldu bezala, egonaldiak hiru gauekoak izaten dira, gehienez ere.

**II.2.3. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre reglamento del Centro Municipal de Acogida Social CMAS.**

“Donostia a 19 de Febrero de 2016

Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL fruto de la interpelación que realizó en la COMISION DE SERVICIOS A LAS PERSONAS a la concejala Delegada de Acción Social, Dña. Aitziber San Román.

JUSTIFICACIÓN

Entre los diferentes recursos de acogida de emergencia con los que cuenta el Ayuntamiento, se encuentra el anexo del Centro Municipal de Acogida Social (CMAS). Este alojamiento anexo al CMAS es destinado a familias con menores a su cargo. Dispone de 3 habitaciones con literas (de 2, 6 y 8 camas), un cocina-comedor, 2 baños y una ducha. Las estancias, salvo excepciones, según el departamento correspondiente a través de sus memorias anuales indica que no superan las tres noches.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Argitaraturiko azken txostenaren arabera, 2014an seme-alaba txikiak zituzten 31 bizikidetza unitate hartu dituzte aterpean. 312 egunean erabili dute aipatu baliabidea. 51 adingabekok erabili dute baliabide hori.

Según el último informe publicado, de 2014, han sido acogidas 31 unidades convivenciales con menores ese año. El número de días que dicho recurso ha estado ocupado ha ascendido a 312 días. El número de personas menores de edad que han utilizado el recurso ha sido de 51.

Zifra globalak gorabehera, urte honen hasieran lau familia egon dira, batera, bizitegi horretan, tarte batean erabiltzaileak pilatu direlarik. Hilabete batean, gutxi gorabehera, hiru familia egon dira elkarrekin bizitzen: lau nagusi eta zortzi ume. Hainbat zio direla kausa, bitarte horretan han egotearen alde egin dute teknikariek. Horrek, lehenik eta behin, pertsona horien beharrak ezin asetzea ekarri du.

Por encima de las cifras globales, se da la circunstancia de que este comienzo de año han llegado a compartir la estancia cuatro familias, dándose una situación de hacinamiento durante un tiempo. A lo largo de un mes aproximadamente han convivido 3 familias, cuatro adultos y ocho niños y niñas. Por diferentes circunstancias, se ha valorado la continuidad de las mismas durante este espacio de tiempo. Este hecho ha supuesto, en primer lugar, la imposibilidad de cubrir las necesidades básicas de estas personas.

Gogora ekarri beharrean gaude Gobernu Batzarrak erabaki zuela eranskinera otordua eramateko kontratua aldatzea, zerbitzuak ez zuelako bermatzen beharreko higiene baldintzak betetzerik. Halere, kontratu hartan zehaztu bezala, eranskinerako anoak —azarotik aurrera hutsean ontziratu beharrekoak— egunean hamar izango dira, sei bazkarirako eta lau afarietarako. Datu horiek kontuan baiets dezakegu ezin izan dutela bermatu tarte horretan egoitzan izandako pertsonek bazkari eta afari bana jaso izana; areago, ezta haietako bakoitzak otordu bat eguneko ere.

Debemos recordar que, en Junta de Gobierno Local, se acordó la modificación del contrato que sirve las comidas al anexo ya que se venía dando un servicio que no garantizaba las condiciones de higiene necesarias. Sin embargo, en este contrato se cuantificó que las comidas para el anexo, a partir de noviembre envasadas al vacío, serían un total de diez al día; seis para la comida y cuatro para cenas. Teniendo en cuenta estos datos, podemos confirmar, que no se ha podido garantizar que todas las personas que en este tiempo han estado en el anexo hayan podido recibir una comida y una cena cada una; es más, ni siquiera una comida al día para cada uno de ellos.

Era berean, ume horiek guztiak, eskolaratzeko adinean egonda, denbora tarte horretan inolako hezkuntzarik jaso gabe egon dira. Gai horri dagokionez, gogoan izan behar dugu,

Igualmente, todos estos niños, la mayoría de ellos, en edad escolar, han estado todo este tiempo sin recibir ningún tipo de educación. En relación a este tema, debemos de recordar

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioko 28. artikuluaz bat, Espainiako Konstituzioko 27.1 artikuluak denok hezkuntzako eskubidea izatea arautzen duela. Era berean, Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak adierazten duenez, oinarrizko lehen eta bigarren hezkuntzak, 6 eta 16 urte bitarteko hamar urteko eskolaratzea, nahitaezkoak eta doakoak dira. Botere publikoek, hortaz, denon hezkuntza eskubidea bermatu behar dute irakaskuntza orokorrean programatu eta, eragindako sektore guztiek eraginkorki parte hartzen dutela, eta ikastegiak eratuta.

que, en consonancia con el artículo 28 de la Convención sobre los Derechos del Niño, el artículo 27.1 de la Constitución española reconoce el derecho de todos a la educación. Igualmente, la Ley orgánica de Educación 2 de 2006 señala que la enseñanza básica primaria y secundaria que comprende diez años de escolarización entre los 6 y los 16 años es obligatoria y gratuita. Los poderes públicos, por tanto, deben de garantizar el derecho de todos a la educación mediante una programación general de la enseñanza, con participación efectiva de todos los sectores afectados y la creación de centros docentes.

Denbora horretan Abegi Etxeko Eranskinean izan diren atzerriko ikasleei dagokienez, berriro aipatu beharra dago Konstituzioak eta Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak ez dutela egiten bereizketarik. Atzerritarren Legeko 9.1 artikuluan aipatzen duenez, hemezortzi urtetik beherako atzerritar guztien eskubide eta eginbeharra da heziketa, espainiarren baldintza berberetan, nahiz eta artikuluak berak nahitaezko hezkuntzara mugatzen duen (hau da, eskolaurrekoa eta DBHren ondorengoa ez daude sartuta).

En relación con los alumnos extranjeros, aquellos que han estado en este tiempo en el anexo del CMAS, hay que volver a señalar que la Constitución y la Convención sobre Derechos de los niños, no hace distinción. La Ley de extranjería en su articulo 9.1 señala que todos los extranjeros menores de dieciocho años tienen derecho y deber a la educación en las mismas condiciones que los españoles, aunque lo límita el propio artículo a la educación de naturaleza obligatoria (es decir que preescolar y posterior a la ESO no estarían cubiertas).

Abegi Etxeko Eranskinak behin-behineko beharrizan bat —orokorrean, denbora labur baterako— ase arren, gure ustez beharrezkoa da oinarrizko beharrizan hori asetzea. Errealitateak erakutsi digunez, ezarritako hiru egun baino ematen dute han zenbait adingabek. Noraezekoa da bitartekoak jartzea, bestela, adingabe horien kalteberatasuna eta pobrezia luzatuko ditugu, lo egiteko leku finkorik ez izate soilagatik.

A pesar de que el anexo del CMAS cubre una necesidad eventual y, en general, por poco espacio de tiempo, entendemos que es necesario cubrir esta necesidad básica. La realidad nos muestra que algunos y algunas de las menores están más de los tres días que se establecen. Es imprescindible poner medios porque, de lo contrario, perpetuamos situaciones de vulnerabilidad y pobreza en estos menores por la simple circunstancia de no tener un lugar estable donde dormir.

Hori dela eta, hauxe da gure

Es por ello, por lo que presentamos la siguiente

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari Abegi Etxeko Eranskina arautzeko araudi bat lantzeko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari egoitza hori darabilten pertsonen oinarrizko beharrak bermatzeko, hala, eranskinean diren pertsona guztiek egunero hiru otordu bermatzeko beharrezko formula bilatuko du.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari Hezkuntza Sailarekin batera heziketa zerbitzu bat jartzeko adingabeei eranskinean dauden bitartean.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea”.

MOCION DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a elaborar un reglamento que regule el funcionamiento del anexo del CMAS.

2. El Pleno del ayuntamiento insta al Gobierno municipal a garantizar las necesidades básicas de las personas que utilicen este espacio, de modo que, buscará la fórmula necesaria para cubrir tres comidas diarias a todas las personas que ocupen el anexo.

3. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a que, en colaboración con el departamento de Educación, facilite un servicio educativo para los menores que se alojen en el anexo durante su estancia.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak, Maria Luisa Garcia Gurruchaga andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, Dª. Olaia Duarte López, Dª. María Luisa García Gurruchaga y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**3. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**AHO BATEZ.**

**UNANIMIDAD.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA,**
**AURKAKO BOTOAK: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 14 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

**3. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) - IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 17 – (8) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, etxegabeentzako oinarrizko zerbitzuak direla eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten dio Gizarte Ekintzako zinegotzi ordezkari Aitziber San Romani, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN egindako interpelazioaren

**II.2.4. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre servicios básicos personas sin hogar.**

“Amaia Martin, Portavoz del Grupo Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL fruto de la interpelación que realizó en la COMISION DE SERVICIOS A LAS PERSONAS a la concejala Delegada de Acción Social, Dña. Aitziber San

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Erakunde guztiek landu behar dute estrategia bat gizarte bazterketaren alderdirik muturrekoena deuseztatzeko: kalean lo egiten duten pertsonak. Europar Batasunak, 2010. urtean, bere egin zuen erronka hori, baina, horretarako, politika integralak behar dira. Hala, 2015ean, etxegabeen egoera amaitzeko proposamen bat onartu zuen. Horren bidez, Europako Batzordeari eskatu zion landu zezala estrategia bat etxegabeen egoera aztertzeko eta estatu kideen jarduna gidatzeko. 2015. urtea amaitu da, baina Espainiak ez du ez estrategiarik eta ez neurririk landu horretarako.

Etxegabeen egoera deuseztatu nahi duten politikek oinarri hauxe izan behar dute: eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak lortzea, pertsona orok bizi maila egoki bat izateko duen eskubidearen bidez. Eskubide horiek lortuko direla bermatu beharrean, ordea, ukatu egiten da badirenik ere (esate baterako, etxebizitzarako eskubidea) eta murriztu egiten dira jadanik lortutakoak (esate baterako, osasunerako eskubidea); horrek, noski, talderik ahulenei erasaten die batez ere.

Osasunerako eskubideari dagokionez, etxegabeek diote zailtasunak dituztela osasun sisteman sartzeko. Era berean, eta ikusita etxegabeen bizi itxaropena batez beste 25 urte gutxiago dela gainerako biztanleena baino, azpimarratu behar dugu funtsezko bi alderdik eragiten dutela hori hala izatea: elikadurak eta higieneak.

Román.

JUSTIFICACIÓN

Desde todas las instituciones debe de desarrollarse una estrategia para erradicar la cara más extrema de la exclusión social: las personas que duermen en la calle. La Unión Europea en el año 2010 asumió este reto; para su consecución se requieren políticas integrales. De este modo, aprobó una propuesta para acabar con el sinhogarismo en 2015. De este modo, se solicitó a la Comisión Europea desarrollar una estrategia para abordar la situación de las personas sin hogar que sirviera para guiar la acción de sus Estados Miembros. Una vez pasado el año 2015 debemos de señalar que España no ha desarrollado ningún tipo de estrategia ni medida para tal fin.

La base sobre la que se debe sustentar cualquier política que quiera erradicar el sinhogarismo es la de la consecución de los derechos económicos, sociales y culturales a través del derecho a un nivel de vida adecuado que asiste a toda persona. Sin embargo, lejos de garantizar la consecución de dichos derechos, se niega su existencia (como el derecho a la vivienda) y se restringen los ya logrados (como el derecho a la salud), lo que afecta de manera especial a los colectivos más vulnerables.

En relación al derecho a la salud, debemos señalar la dificultad que las personas sin hogar reconocen a la hora de acceder al sistema de salud. Igualmente, y relacionado con el dato que refleja que la población sin hogar tiene una media de 25 años menos de esperanza de vida a la del resto de la población en general, debemos de destacar dos aspectos

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

fundamentales que la determinan : la alimentación y la higiene.

Hori dela eta, gure ustez, beharrezkoa da politika aktiboak egitea, etxegabeek gutxienez egunean otordu bat egiteko eta garbitzeko aukera izan dezaten.

Por este motivo, planteamos que son necesarias políticas activas que nos lleven a garantizar, al menos, una comida diaria y la higiene personal de las personas sin hogar.

Bestetik, etxebizitzarik ez izateak segurtasun gabezia, deserrotzea eta intimitate falta eragiten ditu, eta, horren ondorioz, egoera pertsonalak nabarmen egiten du okerrera eta harreman sozialak ere eskastu egiten dira. Etxebizitza espazio propio gisa izateak konfiantza ematen du eta gizartean parte hartzea eragiten du. Etxebizitzarako eskubidea funtsezkoa da bizimodu duin bat bermatzeko. Hala ere, beste eskubide sozial batzuekin gertatu den bezala, egiaztatu da, ez bakarrik ez dela aurrera egin eskubide horren unibertsalizazioan, baizik eta atzera egin dela.

Por otro lado, debemos de señalar que la falta de vivienda genera una situación de inseguridad, desarraigo y ausencia de intimidad, que conduce a procesos de gran deterioro personal y de las relaciones sociales. El acceso a una vivienda como espacio propio general confianza en uno mismo y genera participación social. El derecho a una vivienda es esencial para garantizar la vida digna de las personas. Sin embargo, es uno de los derechos sociales en los que se constata no sólo que no se ha avanzado en su universalización sino que se ha retrocedido.

Etxebizitza politikak egiteaz gain, erantzun egin behar zaie ostatuarekin lotuta sortzen diren premia askotarikoei: premiazko unitatea edo egonaldi ertain eta luzekoa, etxebizitza independente bat lortu bitarteko ostatua, intentsitate baxuko baliabidea nahiz familia unitateentzat edo adinekoentzat egokitutako ostatua.

Además de las políticas de viviendas, se debe de dar respuesta a la diversidad de situaciones que requieren un alojamiento, tanto de urgencia como unidades de media y larga estancia, alojamientos de transición hacia una vivienda independiente, recursos de baja intensidad o alojamientos adaptados a unidades familiares o personas mayores.

2012an Bizkaian etxegabeen inguruan egin zen azterketa batek agerian utzi zuenez, pertsonek intimitate handiagoa, ordutegi zabalagoak eta armairu gehiago nahiko lituzkete beren gauzak uzteko. Gainera, erabiltzaileek uste dute aterpetxeek arau asko eta oso zorrotzak dituztela, eta logela propio bat izatea eskatzen dute, intimitate pixka bat izateko, lo lasai egiteko eta seguruago sentitzeko. Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa aterpetxeak izatea baliabiderik

Un estudio que se realizó en Bizkaia en 2012 dirigido a las personas sin hogar, se puso de manifiesto que las personas desearían más intimidad, horarios más amplios y más taquillas para poder dejar sus pertenencias. Las personas usuarias además consideran que los albergues tienen muchas y muy estrictas reglas, y demandan la posibilidad de disponer de una habitación propia, para poder tener algo de intimidad, dormir tranquilamente y sentirse más seguras. Por todo ello, no es de extrañar

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

kritikatuena.

que el recurso más criticado fueran los albergues.

Hori dela eta, “Housing First” edo “Etxebizitza, lehenik” deritzona planteatzen dugu eredu gisa; horren lehentasunezko helburua da ahal bezain pronto ematea etxebizitza batean ostatu pertsonei.

Es por ello que planteamos el modelo conocido como Housing First o Vivienda Primero, cuyo objetivo prioritario debe ser alojar a la persona en una vivienda tan pronto como sea posible.

Ikuspegi horren arabera, ostatu egonkor bat izanda errazago landu daitezke arazo pertsonaletako asko, lehenik ostatua ematen delako, aldez aurreko baldintzarik gabe. Iparraldeko herrialde askotan, etxegabeen egoeraren aurkako politikaren alderdi nagusia da hori, eta, beste kasu askotan, era horretako esperientziak lantzen ari dira. Eredu horren helburua da etxegaberik gabeko gizarte bat lortzea.

Según este enfoque, muchos de los problemas personales se pueden trabajar con mayor facilidad en el contexto de un alojamiento estable, porque primero se concede dicho alojamiento sin condición previa alguna. En muchos países nórdicos es un aspecto central de la política frente al sinhogarismo, y en otros muchos se están desarrollando experiencias de este tipo. Este modelo aspira a lograr una sociedad en la que no haya nadie sin hogar.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Horretarako, ezinbestekoa da hori lortzeko ekimenak planteatzea, eta, horrexegatik, hauxe da gure

Para ello, es fundamental plantear iniciativas que lleven a la consecución de tal fin y es por ello que presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala etxegabeen egoera deuseztatzeko plan integral bat, alor horretan jarduten duten erakundeekin elkarlanean.

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a elaborar un Plan Municipal Integral por la Erradicación del Sinhogarismo, en colaboración con las organizaciones que trabajan en este ámbito.

2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari landu dezala “Etxebizitza, lehenik” proiektu esperimental bat Donostian, sistema hori pixkanaka ezartzen joateko eta, hala, Donostiako etxegabeen ostatu beharrei erantzuteko.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a desarrollar un proyecto experimental de Housing First en la ciudad; con el fin de implantar progresivamente este sistema para cubrir las necesidades de alojamiento de las personas sin hogar de la ciudad.

3. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete ditzala, berehala, Donostian

3. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a cubrir las siguientes necesidades

zenbatutako etxegabeek higiene eta elikadura aldetik dauzkaten oinarrizko beharrak. Horren arabera, hala eskatzen duten pertsonei egunean gutxienez otordu bat egiteko eta dutxa bat hartzeko aukera emango zaie Udalaren Gizarte Abegi Etxean.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

básicas de higiene y alimentación para las personas sin hogar cuantificadas en el municipio de manera inmediata. De este modo, proporcionará, a las personas que así lo soliciten, al menos, una comida y una ducha diaria en el CMAS.

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Aitziber San Roman Abete andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as Dª. Amaia Martín Garín, D. José Luis Arrúe Pintó, Dª. Olaia Duarte López y Dª. Aitziber San Román Abete, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**4. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (7) EAJ-PNV, (6)**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (7) EAJ-PNV, (6)**

**PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**4. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.5. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, herritar merezimenduaren dominak aurkezteko bideoen azpitituluak direla eta**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2016ko otsailaren 15ean izan zuen bileran herritar merezimenduaren dominak aurkezteko bideoen azpitituluei buruz egindako INTERPELAZIOAren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Herritar merezimenduaren dominak emateko ekitaldian, bideoen bidez aurkeztu zituzten izendatuak, osoko bilkuren aretoan jarritako pantaila handi batean. Egun hartan, jende ugari eta askotarikoa zegoen aretoan.

**II.2.5. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los subtítulos en los videos de presentación de las medallas al mérito ciudadano**

“Loïc Alejandro, Concejal del grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios Generales del 15 de febrero de 2016 sobre los subtítulos en los vídeos de presentación de las medallas al merito ciudadano.

JUSTIFICACIÓN

En la ceremonia de entrega de las medallas al mérito ciudadano se presentaron a los y las nominadas mediante vídeos en una pantalla grande en el salón de Plenos. El público ese día era numeroso y muy variado. En los vídeos,

Bideoetan, elkarrizketatuek gaztelaniaz hitz egiten bazuten, euskarazko azpitituluak agertzen ziren irudiarekin batera. Baina euskaraz hitz egiten bazuten, ez zegoen gaztelaniazko azpititulurik.

Mundu guztiak dauka nahi duen hizkuntzan hitz egiteko eskubide baldintzarik gabea. Ondo iruditzen zaigu gaztelaniaz esandakoak euskaraz ematea azpitituluetan, bideoen edukia jende gehiagorengana iristeko eta euskararen erabilera normalizatzeko. Baina ez dugu ulertzen zergatik ez den gauza berbera egin euskaraz esandakoekin, gaztelaniazko azpitituluak jarrita.

Otsailaren 15eko batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zigun oker bat izan zela, arreta faltaren ondorio, eta, oro har, asmoa dela bi hizkuntzetan jartzea azpitituluak.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala modua Udalak berak edo Udalaren izenean sortutako ikus-entzunezkoak bi hizkuntzetan egongo direla bermatzeko, Udalak onartutako hizkuntza politikak ahalbidetzen eta gomendatzen duenarekin bat.

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia.”.

cuando las personas entrevistadas hablaban en castellano, la imagen venía acompañada con subtítulos en euskera. Pero cuando las personas hablaban en euskera, no había ningún subtítulo en castellano.

Todo el mundo tiene el derecho incondicional de expresarse en el idioma de su preferencia. Apoyamos que se haya subtitulado en euskera las intervenciones realizadas en castellano para fomentar un alcance más universal del contenido de los vídeos y la normalización del uso del euskera. Pero no es comprensible que no se haya hecho lo mismo con subtítulos en castellano para las intervenciones en euskera.

En la sesión de la comisión del pasado 15 de febrero, la Concejala Delegada nos comentó que fue un error debido a una falta de atención y que de forma general la intención es proporcionar subtítulos en los dos idiomas.

Por esas razones presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a asegurarse de que este garantizado el carácter bilingüe de los contenidos audiovisuales generados por o en nombre del Ayuntamiento, dentro de lo que permite y recomienda la política lingüística municipal aprobada.

Loïc Alejandro
Concejal del grupo municipal Irabazi Donostia”.

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, energiaz hornitzeko kontratuen gainekoa.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Ogasuneko Batzordeak otsailaren 15ean izan zuen bileran energiaz hornitzeko kontratuez egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Euskal erakunde guztiak eta ordezkari politiko gehienak aspaldi ari dira esaten uko egiten diotela erreaktore nuklearren lehen belaunaldiko instalazioen balio bizitza luzatzeari; izan ere, 30 urterako diseinatu zituzten eta dagoeneko 40 bete dituzte martxan. Hala, gaindika bete dute jabeek aurreikusitako errentagarritasun ekonomikoa, eta dagoeneko ez dago txosten teknikorik, haren jarraipenaren segurtasuna bermatuko duenik.

2014ko maiatzaren 19an, Endesako presidenteak enpresako Akziodunen Batzar Nagusian iragarri zuen Nucleor enpresak

**II.2.6. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre contratación de suministros energéticos.**

“Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de interpelación en la Comisión de Hacienda del 15 de febrero, sobre la contratación de suministros energéticos.

JUSTIFICACIÓN

El conjunto de las instituciones vascas y la gran mayoría de los representantes políticos vienen manifestando desde hace  años su rechazo a la prolongación de la vida útil de unas instalaciones que forman parte de la primera generación de reactores nucleares, que fueron diseñadas para 30 años y que ya han estado 40 funcionando, por lo que ha cumplido con creces la rentabilidad económica diseñada por sus propietarios y ningún informe técnico puede avalar la seguridad de su continuidad.

El 19 de mayo de 2.014, el presidente de Endesa anunció en la Junta General de Accionistas de la empresa que Nuclenor

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Santa Maria de Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzeko eskatuko zuela, amaitutzat jotzen baitzuen lehen belaunaldiko erreaktoreek Fukushimako hondamendiaren ondoren mundu osoan sortutako kezka iturria; baina, batik bat, Mariano Raxoiren gobernuak emandako erraztasunei esker hartutako erabakia izan zen.

solicitaría la reapertura de la central nuclear de Santa María de Garoña dando por amortizada la preocupación mundial que causan los reactores de primera generación tras el desastre de Fukushima, pero, sobre todo, contando con las facilidades ofrecidas por el Gobierno de Mariano Rajoy.

Hori entzunda, euskal erakundeek erantzun egin zuten berriz ere, eta besteak beste, Eusko Legebiltzarrak erabaki zuen Espainiako Gobernuari eskatzea ez dezala onartu instalazio haiek berriz irekitzeko beste lizentziarik. Akordio horrekin bat egin zuen Alderdi Popularrak Euskadin. Beste erakunde batzuetan, berriz (Diputatuen Kongresuan, Senatuan eta Espainiako Gobernuan), oso bestelako jarrera izan zuen; eta are gehiago, neurri horien sustatzaile ere izan zen.

Una vez más, ante este anuncio, las instituciones vascas reaccionaron y, entre otras, se produjo un acuerdo en el Parlamento Vasco en el que se instaba al Gobierno de España a no autorizar una nueva licencia para la reapertura de aquellas instalaciones. A dicho acuerdo en Euskadi, se sumó el Partido Popular que, sin embargo, en otras instituciones (Congreso de los Diputados, Senado y Gobierno de España) mantiene una postura radicalmente diferente e, incluso, se convierte en impulsor de estas medidas.

Hala, 2014ko abenduan, Garoñako zentral nuklearra berriz irekitzearen aurkako konpromiso bat sinatu zuten oposizioko alderdi gehienek Diputatuen Kongresuan (zehazki, Sozialisten Parlamentuko Taldeak, Euskal Legebiltzar Taldeak -EAJ-PNV-, Ezker Anitzak, ERCk, COMPROMISek, EQUOk, Kanariar Koalizioak, Amaiurrek, BNGk eta Geroa Baik sinatu zuten); baina, halere, Raxoiren gobernuak ez entzunarena egin izan du.

En este sentido, en diciembre de 2.014 se produjo en el Congreso de los Diputados la firma de un Compromiso suscrito por la mayoría de los grupos de la oposición en contra de la reapertura de la Central Nuclear de Garoña (compromiso suscrito por el Grupo Parlamentario Socialista, Grupo Parlamentario Vasco (EAJ-PNV), La izquierda Plural, ERC, COMPROMIS, EQUO, Coalición Canaria, Amaiur, BNG y Geroa Bai), ante el que el Gobierno de Rajoy pretende hacer oídos sordos.

Eta hori gutxi balitz, 2015eko urriaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten Santa Maria de Garoñan biltegi nuklear bat aldi baterako jartzeko ingurumen inpaktuari buruzko adierazpen bat onartu zuela Ingurumen Ministerioak. Eta hala egin zuen aurrez euskal erakundeei (Legebiltzarrari zein

Pero, por si fuera poco, el 9 de octubre de 2.015 nos encontramos con que el Boletín Oficial del Estado publicaba la aprobación del Ministerio de Medio Ambiente de la declaración de impacto ambiental para instalar temporalmente un almacén nuclear en Santa María de Garoña. Y todo ello, sin haber

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eusko Jaurlaritzari) ezer ere esan gabe, eta oro har, herritar guztiei ezkutatuz, jakinik herritarrek beti eman dutela auzi honetan kontrako iritzia.

Era berean, hainbat komunikabidek iragarri bezalaxe, plantaren jabeak (Nucleor) azken hilabeteotan egin dituen lehen lanak ebaluatzeari eta onartzeari ekin zion azaroaren 4an Segurtasun Nuklearraren Kontseiluak (CSN), planta berriz irekitzeko asmoz. Batzar honek, ordea, hasierako hobekuntza horiek onartzearen aurka bozkatu zuen hilaren 4an, zera salatuz: «Zentrala berritzeko ebaluazioa egiteari ekin diote, Nucleor enpresaren eskaera ezohiko eta argitaragabearen ondorioak teknikoki zein juridikoki argitu aurretik».

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiko Erosketa Zentralari adierazteko berriz begiratzeko Iberdrola eta Endesa enpresekin (Nucleor enpresaren jabeak biak) indarrean dituen kontratuak, horiek eteteko edo ez berritzeko aukera azter dezan, baldin eta Nucleor enpresak, Santa Maria de Garoñako zentral nuklearraren jabeak alegia, zentral hori irekita edukitzeko ahalegina alde batera uzten ez badu.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.”.

informado siquiera a las instituciones vascas (Parlamento y Gobierno) y con ocultación a la ciudadanía en general, que tantos pronunciamientos desfavorables ha realizado en relación a esta cuestión.

Asímismo, tal y como anunciaban diversos medios de comunicación, el pasado 4 de noviembre, el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) ha comenzado a evaluar y a aprobar los primeros trabajos que la propietaria de la planta, Nuclenor, ha acometido en los últimos meses para proceder a la reapertura de la Planta. Esta junta el día 4 votó en contra de la aprobación de las primeras mejoras denunciando que «Se ha iniciado la evaluación para la renovación sin que hayamos aclarado ni técnica ni jurídicamente las implicaciones de la anómala e inédita solicitud de Nuclenor».

Por todo ello, es por lo que presentamos la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que traslade a la Central de Compras de la Diputación Foral la necesidad de revisar los contratos que mantiene en vigor con las empresas Iberdrola y Endesa, propietarias de Nuclenor, para evaluar la posibilidad de su cancelación o no renovación, mientras la empresa Nuclenor, dueña la central nuclear de Santa María de Garoña, no ceje en su empeño de mantener abierta dicha central.

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia”.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Jose María Murguiondo Casal jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak eta Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Loïc Alejandro, D. José María Murguiondo Casal, D. Axier Jaka Goikoetxea y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

---------------

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

**II.2.7. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Udalbatzaren bilerak online ematen dituen web orrian azaltzen diren iragarkiak direla eta.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2016ko otsailaren 15ean izan zuen bileran osoko bilkurak online ematen dituen web orrian azaltzen diren iragarkiak direla-eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko urtarrilean izandako ohiko osoko bilkuran egiaztatu ahal izan genuen bazela kontaktuetarako iragarki bat, edukiz sexista, Internet bidez Udalbatzaren bilerak ematen

**II.2.7. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre los anuncios que aparecen en la web que emite el Pleno on line.**

“Loïc Alejandro, Concejal del grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCION DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de Servicios Generales del 15 de febrero de 2016 sobre los anuncios que aparecen en la web que emite el pleno online.

JUSTIFICACIÓN

En el transcurso del Pleno Ordinario del mes de enero 2016 pudimos comprobar la existencia de un anuncio de contactos con contenido sexista en la pagina que emite el

dituen web orrian. Iragarki hori orriaren behealdean eskuinean izan zen, Udalbatzaren bilera eman zen bitarte osoan.Iragarki hori han zela egiaztatu ahal izan zen gure taldearen lau ordenagailuetatik, bai eta Udalaz kanpoko hainbat ordenagailutatik ere.

pleno a través de internet. Este anuncio se mantuvo en la parte derecha inferior de la página durante toda la retransmisión del pleno. Se pudo comprobar la existencia de ese anuncio desde los cuatro ordenadores de nuestro grupo y también desde ordenadores fuera del ámbito municipal.

Udalbatzaren bilerak online zerbitzua erabiliz ematen dira. Bideoa Udalaren webgunean azaltzen da. Hala ere, internautak irakurketa botoitik kanpora bideoaren irudiko edozein tokitan klikatzen badu, beste orri bat irekitzen da, Udalaren webgunekoa ez dena, baizik eta hedatze plataformarena berarena. Erabiltzaileak uste izan dezake Udalaren webgunean jarraitzen duela, bideoaren gainean Udalaren logotipoa ageri baita. Horrenbestez, pentsa dezake orri horretan azaltzen den guztiak Udalaren oniritzia duela.

La retransmisión de las sesiones de Pleno se realiza utilizando el servicio online. El vídeo aparece en la web del ayuntamiento. Pero si el o la internauta clica en cualquier sitio de la imagen del vídeo fuera del botón de lectura, se abre una nueva pagina que no es de la web del Ayuntamiento sino de la propia plataforma de difusión. El usuario o usuaria puede creer que sigue en la web del ayuntamiento, ya que además aparece el logotipo del Ayuntamiento encima del vídeo. Con lo cual puede pensar que todo lo que aparece en esa página tiene el beneplácito del Ayuntamiento.

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Halako iragarkiak izateak emakumeek nozitzen duten desberdinkeria betikotzen du; emakumeak gauzatzat ikustea sustatzen du, kontsumoko objektutzat hartuta; eta hori, azken buruan, indarkeria matxistaren beste mota bat besterik ez da.

La existencia de este tipo de anuncios cronifican la desigualdad de las mujeres, incentivan la cosificación de las mismas, reconociéndolas como un objeto de consumo, algo que en definitiva no es más que otro tipo de violencia machista.

Nahiz eta doako plataforma hori erabiltzeko erabakia aurreko legealdian hartutakoa izan eta oraingo gobernuak harekin jarraitu besterik ez duen egin, nahi ez ditugun egoerak sor ditzake, eta horren froga badugu.

Aunque la decisión de utilizar esa plataforma gratuita fue tomada en la legislatura anterior, y que el gobierno actual simplemente haya dado continuidad al mismo, tenemos la prueba ahora de que puede provocar situaciones no deseables.

Arazo handiak ekar ditzake Donostiako Udala

Es muy problemático que el Ayuntamiento de

halako iragarkiekin zuzenean lotuta egoteak, eta hori konpondu egin beharko genuke.

Badira hainbat aukera horretarako:

- eragoztea internautak Udalaren wegbunetik online plataformaren webgunera igaro ahal izatea.
- oraingo plataformaren ordainpeko bertsioa erabiltzea, doakoaren ordez, ezeren iragarkirik atera ez dadin .
- halako arazorik ekarriko ez duen doako beste plataforma bat erabiltzea .
- kode irekiko aplikazio bat instalatzea eta UIZtik zabaltzea, Udalaren barruko zerbitzari baten bidez .

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bila dezala irtenbide tekniko bat, osoko bilkurak ikusterik izan ez dadin iragarki sexistak edo komertzialak jartzen dituzten kanpoko webguneetan, Udalaren webgunetik sartuta.

Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

Donostia pueda estar directamente asociado a este tipo de anuncios y deberíamos remediar a eso.

Varias opciones existen:

- impedir que los y las internautas puedan pasarse, desde la web del Ayuntamiento, a la pagina web de la plataforma online.
- utilizar una versión de pago de la plataforma actual, en lugar de la opción gratuita, para que no haya ningún anuncio[1].
- utilizar otra plataforma gratuita con la cual no podría pasar ese tipo de problema[2].
- Instalar una aplicación de código abierto y realizar la difusión desde el CIM con un servidor interno del Ayuntamiento[3.]

Por esas razones presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno municipal a encontrar una solución técnica para impedir la visualización del pleno en una página externa a la que se accede desde la web del Ayuntamiento y que pueda integrar anuncios sexistas o de carácter comercial.

Loïc Alejandro
Concejal del grupo municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Loïc Alejandro jaunak, Axier Jaka Goikoetxea jaunak, Juan Ramon Viles Mitxelena jaunak eta Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

[1] http://livestream.com/platform/pricing
[2] http://bambuser.com/
https://support.google.com/youtube/answer/2474026?hl=en
[3] http://www.kaltura.org/
https://obsproject.com/
http://www.videolan.org/projects/dvblast.html

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Loïc Alejandro, D. Axier Jaka Goikoetxea, D. Juan Ramón Viles Mitxelena y Dª. Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, kontratuetako gizarte irizpideak direla eta.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du, otsailaren 15eko Ogasun Batzordean kontratuetako gizarte irizpideen inguruan egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak, gainerako administrazio publikoek bezala, zerbitzu publiko ugari dauzka enpresei kontratatuta. Besteak beste, bide garbiketa, hiri hondakinen bilketa, TAO zerbitzua, etxez etxeko laguntza, gizarteratze zentroak eta prebentzioa, haurtzaroa eta familia dira zerbitzu horietako batzuk, eta langile ugarik egiten du lan horietan.

Zerbitzu horiek azpikontratatuta egonik ere, Udalak badu erantzukizunik zerbitzu horien

**II.2.8. Moción de control que presenta el Grupo IRABAZI DONOSTIA sobre claúsulas sociales en la contratación.**

“Amaia Martin, Portavoz del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de interpelación en la Comisión de Hacienda del 15 de febero, sobre claúsulas sociales en la contratación.

JUSTIFICACIÓN

El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, al igual que el resto de administraciones públicas, tiene un importante número de servicios públicos contratados a distintas empresas. Estos servicios van desde la limpieza viaria; la recogida de residuos urbanos; el servicio de OTA; al servicio de ayuda a domicilio; los centros de inserción social o los de prevención, infancia y familia, entre otros, que emplean a un elevado número de trabajadores y trabajadoras.

La subcontratación de estos servicios no exime al Ayuntamiento de la responsabilidad que

kalitatean eta langileen lan baldintzetan. Onartezina da kontratazio publikoen bidez milaka pertsonaren lan baldintzak eskastea.

tiene en relación a la calidad de los mismos y las condiciones laborales de los y las trabajadores empleadas en ellos. Es inadmisible que las contrataciones públicas estén sirviendo para precarizar las condiciones laborales de miles de personas.

Ez gatoz inola ere bat erantzukizun publikoko zerbitzuak azpikontratatzeko grina horrekin, ez eta horretarako aitzakia kostuak aurreztea izatearekin ere; izan ere, kostu horiek ez dira aurrezten enpresek dituzten mozkinen kontura, baizik eta ahaleginaren bizkar, dela soldata txikiagoa jasota, dela lan gehiago egin eta gutxiago kobratuta.

No compartimos en absoluto el afán de subcontratar unos servicios cuya responsabilidad es pública, y que se haga con la excusa de ahorra costes, porque esos costes no se ahorran con cargo al beneficio que genera a las empresas, sino a costa del esfuerzo vía salario o vía trabajar más y cobrar menos.

2013ko ekainaren 10ean, aurreko gobernu taldeak Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideak onartu zituen. Jarraibide horiek nahitaez sartu behar dira kontratuen administrazio baldintza berezien eta baldintza teknikoen agiriak egitean, eta kontuan hartu behar dira kontratu txikietan ere, kontratu agiri guztietan sartuta.

Con fecha 10 de junio de 2013 el anterior equipo de Gobierno, aprobó la “Instrucción para la incorporación de criterios sociales, ambientales, éticos, laborales, lingüísticos y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián” que deben incluirse en el momento de elaborar los pliegos de claúsulas administrativos particulares y de prescripciones técnicas de los contratos, y que deben tenerse en cuenta asimismo en los contratos menores, que las incluirán en los documentos contractuales correspondientes.

Ongi irizten diegu jarraibide horiei, horrela Donostiako Udalak kasu egin beharra baitauka azpikontratatutako udal zerbitzuei; areago, gure ustez, indarrean diren bitartean egin behar zaie jarraipena kontratuei, eta ez bakarrik sinatzen direnean, kontratu horietako batzuk hainbat urterako baitira.

Valoramos de manera positiva la citada instrucción, porque supone que el Ayuntamiento no se desentiende de los servicios municipales subcontratados, si bien creemos que debe haber un seguimiento durante la duración del mismo, y no solo en el momento en el que se suscribe, dado que la vigencia de algunos es plurianual.

Hala ere, uste dugu EAJren eta PSEren udal gobernuak, ikusita asmorik ere ez daukala Udalak zuzenean zer zerbitzu eman litzakeen aztertzeko, behintzat, ahal duen guztia egin

No obstante, consideramos que, ya que el Gobierno municipal de PNV y PSE, ni siquiera tiene intención de estudiar qué servicios se podrían prestar directamente por parte del

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

beharko lukeela azpikontratatutako zerbitzuak baldintza onetan eman daitezen hala onuradunentzat nola langileentzat.

Ayuntamiento, sí debe hacer todo lo posible para que los servicios de su competencia subcontratados se presten en buenas condiciones, tanto para las personas beneficarias de los mismos como para los y las trabajadores que los realizan.

Uste dugu gehiago ere indartu litezkeela 2013ko jarraibideak, eta, horregatik, hauxe da gure

Creemos que aún hay margen para reforzar la instrucción de 2013, motivo por el que presentamos la siguiente,

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari beste puntu bat eransteko Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideei, hitzarmen kolektibo baten indarraldia amaitzen denean, aurreraeraginez, enpresa esleipendunak ez ditzan gutxitu eskaintza aurkeztu zuenean indarrean zegoen hitzarmenari atxikitako langileen lan baldintzak.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que incluya en la “Instrucción para la incorporación de criterios sociales, ambientales, éticos, laborales, lingüísticos y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián”, un punto por el que, en caso de pérdida de vigencia de un convenio colectivo por efecto de la ultraactividad, la empresa adjudicataria no minorará las condiciones de trabajo de los y las trabajadoras sujetos al convenio en vigor en el momento de presentarse la oferta.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jaso dezala, Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideetan, hiru hilean behin txosten bat egin beharko dela jarraibidearen aplikazioaz. Txosten hori gobernu organoei eta udal taldeei bidaliko zaie, aldi berean.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que incluya en la “Instrucción para la incorporación de criterios sociales, ambientales, éticos, laborales, lingüísticos y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián”, la elaboración de un informe trimestral que será trasladado simultaneamente tanto a los órganos de gobierno como a los grupos municipales sobre la aplicación de esta instrucción.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari jaso dezala, Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen,

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, insta al Gobierno municipal a que incluya en la “Instrucción para la

etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpideak sartzeko jarraibideetan, txosten bat egin beharko dela kontratu baten indarraldia amaitu baino sei hilabete lehenago, hura luzatzea beharrezkoa den edo ez ikusteko.

incorporación de criterios sociales, ambientales, éticos, laborales, lingüísticos y de igualdad en la contratación del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián", la elaboración de un informe que valore la necesidad de prorrogar o no aquellos contratos susceptibles de serlo seis meses antes de la finalización del plazo del periodo principal de vigencia de los mismos.

Sinatua: Amaia Martin Garin
Irabazi Donostia Udal Taldearen bozeramailea".

Fdo Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6004n 2003-04

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Jose Luis Arrue Pinto jaunak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a Dª. Amaia Martín Garín, D. Ricardo Burutarán Ferré, D. José Luis Arrúe Pintó y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**8. KONTROL MOZIOAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO Nº 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL Nº 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (7) EAJ-PNV, (6) PSE-EE, (3) PP.**

